

TOKIKOM

2020ko abendua | 209. zenbakia



Aukeratu Txorierri





SUITE DELUX

MARKA ESKLUSIBOAK, ATSEDENERAKO




Zorionak eta Atsedeen Berri On!

Ohea aldatuko dizugu, bizitza hobetuko dizugu

WWW.SUITDELUX.COM

Iparragirre 80, Leioa - Tf. 944 316 516

Derioko Seminarioa - Tf. 944 545 147

-  **4** Eretxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **9** Itxialdia
-  **10** Gurean izan da... Zuhaitz Gurrutxaga, aktorea
-  **12** Argi ultramorea COVID-19aren aurka
-  **14** Lezamatik Tokiora, Gaizka Peñafielen eskutik
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Bizi Txorierri
-  **22** Gure ostalariak
-  **26** Agurra institutuan
-  **28** Gabonetako egitarauak
-  **32** Teknologia... Abangoardiako txertoak
-  **33** Aikorrizketa... "Gabon 2020. Egun on 2021"
-  **34** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa



10 Zuhaitz Gurrutxaga, aktorea



14 Lezamatik Tokiora, Gaizka Peñafielen eskutik



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Belen Gana, Jon Legarreta, Gaizka Peñafiel, Itsasne Zubiri eta Xabier Diaz

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Txertoa? Bai, mesedez


COVID-19aren kontrako txertoa ipini behar dugu? Bai? Ez? Txertoa biztanleria osoari ipini behar zaio derrigorrean? Eztabaida horiek pil-pilean daude azken aldian. Nire ustez, alde bate-tik, epe laburrera bizimodu "normala" izan nahi badugu, behar-beharrezkoa da txertoa ipintzea; beste aldetik, egia da zalantzagarria dela txertoa derrigorrezkoa izatea. Hala ere, nik erabaki ahal izanez gero, derrigorrezkoa izatearen aldeko botoa emango nuke, horrela talde-immunitatea lortuko genuke eta.

Jakin badakit jende asko behartzearen kontra dagoela, baina zergatia jakin nahiko nuke. Seme-alabei ipintzen zaizkien ohiko txertoekin ez dugu inolako arazorik; zergatik bai COVID-19aren aurkako txertoarekin? Berria delako? Arinegi lortu izanak zalantzak sortzen dizkigulako?

Argitu beharra dago bakarrik zientifikoki onartzen diren txertoak erabili ahalko direla, eta horrek bermatzen du txertaketaren orokorra segurtasun nahikoaz egingo

dela. Era berean, aipatu behar da edozein medikamentuk –ibuprofenoa, paracetamola eta abar– nahi gabeko ondorioak sortzen dituztela, eta, hala eta guztiz ere, hartzen ditugu. Txertoa, izatez, gizakiek osasun-arloan egindako aurkikuntzarik handiena da: munduan ia erabat desagerarazi ditu hainbat gaixotasun, hala nola poliomielitisa, difteria, tetanosa eta baztanga.

Historiako lehen txertoa baztangaren kontrakoa izan zen eta Edgar Jenner Ingalaterrako herri txiki bateko medikuak aurkitu zuen 1796an. Jenner honetaz konturatu zen: behien baztangarekin kutsatutako emakumezko esneketariak gizakien baztangaren aurka – behienarena baino askoz hilkorragoa– immunizatzen ziren. Medikua lagin bat hartu zuen emakumezko esneketari batengandik eta zortzi urteko ume bati jarri zion. Umea gaixotu zen, baina 48 orduren buruan guztiz sendatu zen, eta gainera, emakumezko esneketariei gertatzen zitzaizen moduan, baz-



JON LEGARRETA
Irakaslea

tangaren kontrako betiko immunitatea lortu zuen.

Harrezkero txerto asko garatu dira eta azkena COVID-19aren kontrakoa da, zeinaren garapenean, elkarri lagunduz, mundu osoko zientzialariek parte hartzen baitute. Argi dago zientzian dirua "galdu" behar dela. Zientziak aske egiten gaitu; aske, terraplanistengandik, homeopaten-gandik, negazionistengandik eta txertoen kontrako jendearengandik. Txertoa? Bai, mesedez.

Gure hitzak esan, galdu ez daitezen

Gure gurasoen kontatzen zizkiguten inguruko bizimodu eta gertaerak. Horrela dakigu gerra aurretik Loiu dantza-taldea zegoela, eta Sondikan, ikastola, Polisene Trabudua haien irakaslea zelarik. Baserrietako lanak sarri auzolanean egiten ziren, eskolara, talo hotza eta zeozer hartuta, askok oinez kilometroak egin ondoren, egun osorako joaten ziren. Zelan jolasten ziren ere badakigu, eta inguruko mutilak errondan etortzen zirela. Ganadua zaintzeko, ermandadea sortu zen. Esnea edo bendeja saltzera Bilboko plazara joaten ziren; txarriboda ostean odolkiak ordainetan



BELEN GANA
Euskara-irakasle erretiratua

auzoetan banatu. Kanpomartxo egi-ten zen, eta labasua. Istorio eder eta atsegina asko.

Estutasun eta egoera larriak ere. Gogorrenak, gerra- eta gose-garaiak: miseria, desagertuak, osabak hiltzera edo "trabajadores"-era kondenatuak... Aitaginarrebak Elgetako frontean lagunak hiltzen ikusten sufritu zuena urte asko pasatu ondoren kontatu zigun.

Geuk, beranduago, Burgoseko epaiketa nahiko hurbiletik bizi genuenok eta herri-mugimenduak antolatzen lan egin genuenok ere badugu zer konta: langile-borrokak, euskara eta euskal kultura indartzeko egindako lana eta abar. Ez daitezela ahaztu.



Derioko Udalak bost euroko 5.500 bonu banatu ditu, herrian kontsumitzea bultzatzeko

Derioko Udalak 27.500 euro bideratu ditu "Derio Martxan" bonu-kanpainara, tokiko merkataritza, ostalaritza eta enpresak sustatzeko. Hamazortzi urtetik gorako derioztarrek bost euroko bonu bana jaso dute etxean bertan, eta bonua kanpainarekin bat egin duten saltokietan (36 orotara) gastatu ahaliko dute urtarilaren 5a baino lehen.

Herritarrek gehienez bonu bi erabili ahaliko dituzte erosketa bat egiteko.

"Kanpainaren bitartez, udalerriko negozioekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, eta, aldi berean, herritarrei tokiko saltokietan eros-tearen garrantzia ikusarazi", azaldu du Esther Apraiz Derioko alkateak. "Egoera delikatua da oso. Orain, inoiz baino gehiago, tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatu behar ditugu. Gabonetako erosketak egiteko deskontua izateaz gainera, gutako

bakoitzak bere aletxoa jarriko du, herria hainbeste girotzen duten sektore horiei laguntzeko. Herriko establezimenduek kalitatea, tratu pertsonalizatua eta profesionaltasuna eskaintzen dituzte".

Kanpainaren oinarriak eta berarekin bat egin duten saltokien zerrenda www.deriooudala.net webgunean kontsultatu daitezke. Bestalde, saltokietan "Derio Martxan" kanpainaren logotipoa ipini da ikusgai.



Garraio publikoa hobetu da Loion

Josu Andoni Begoña alkateak bere webgunean adierazi duenez, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Sailaren ordezkariekin bilerak izan ondoren, loiuztarren eskaera bi onartu dira: bata, EHURA joateko autobusa herritik pasatzea, eta bestea, Larrondo eta Zabaloetxe auzoen artean autobus-zerbitzua izatea, lehen auzoko herritarrak herrigunera joan ahal izateko. Gainera, zerbitzu horrek ahalbidetzen du loiuztar guztiek Sondikarako zuzeneko lotura izatea.

Bertsolari Txapelketa Nagusia atzeratuta

Txapelketak 2021ean izan behar zuen, baina zenbait lurraldetako txapelketekin gertatu den moduan, antolatzaileak hura atzeratzea erabaki dute. Data berria pandemiaren bilakaeraren eta bertsolaritzaren egoeraren arabera erabakiko dute. Nolanahi ere, bertsolaritzaz gozatzeko guneak bultzatzen jarraituko dutela adierazi dute, eta datozen egunetan ekimena aurkeztuko dute herriz herriko berto-eskolen eta antolatzaileen lana baliolan jartzeko eta plaza sustatzeko.



Sondigarbi GARBITEGIA
ITURRIGANE, 2 EGUNERO
635584941 8:00-22:00

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. lorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

IRATXO
gozotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
helak
pastelak
pastak
Mikel Zurita, 2 - 3. lorja - Sondika, 48150 - 94 645 09 19

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

BIDE-GORRI
Txirib kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75
Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour express
ORDUTEGIA
Astelehenerik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30
Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Gazteen kontrataziorako dirulaguntzak

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 16.000 euro zuzenduko ditu gazteen kontrataziorako. Oro-tara, 2.000 euroko zortzi dirulaguntza emango ditu, eta eskaera 2020ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean gazte txorierritarrak kontratatu dituzten enpresek egin ahalko dute. Gazte horiek Txorierriko udalerrietako batean errolatuta egon beharko dute, eta 30 urtetik beherakoak izan.

Bestalde, lan-kontratuak gutxienez hiru hilabetekoa eta jardunaldi osokoa izan beharko du; aldi baterako edo mugagabeko kontratuak izan ahalko dira. Eskaerak abenduaren 30era arte aurkeztu ahalko dira Txorierriko Mankomunitatean bertan. Informazio gehiago, ipintor@txorierri.eu helbide elektronikoan.



“Sondika zurekin doa” kanpainak G herrian erostea eta kontsumitzea b



Sondikako Udalak “Sondika zurekin doa” kanpaina martxan ipini du, herritarrek “tokiko dendetan erostera eta tokiko tabernetan eta jatetxeetan arduraz kontsumitzera animatzeko”. Xabier Zubiaur alkateak azaldu du kanpaina “Sondikan

erosi – Sondikan gozatu” ekimenaren baitan dagoela. Ekimen horren bitartez, besteak beste, zuzeneko laguntzak, merkataritza-kanpaina eta bonu-kanpaina sustatu dira herriko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzeko.

Ne-aphaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea
Proiektuak eta material elektrikoaren salmenta
Aizkorri Kalea, 1 - Telf. / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializatea:
Xalfla-lanak
Zoruak
944522910 - 665703312 - 652772016

SUGOI TABERNA
Byron
smile
Wi-Fi
628 77 30 17
Goiko kalea, 2 behe
Derio (BIZKAIA)

abonetan ultzatuko du

Kanpainaren harira, dendetan, tabernetan eta jatetxetan ipintzeko kartelak eta biniloak egin dira, eta oparien bilgarrietan itsasteko pegatinak. Era berean, dekalogo bat osatu da, ostalaritzako establezimenduetako mahaietan jartzeko eta hala ostalariei osasun-arauak betearaztea errazteko.

"Aholkularitza-zerbitzua ipini dugu dendarien eta ostalarien eskura, produktuak eta kanpainak bultzatzen laguntzeko. Zerbitzua Sondika Gara plataformaren bidez kudeatuko da", esan du Zubiaurrek. Izan ere, helburua da herriko denda, taberna eta jatetxe guztiek Gabonetan produktu- eta zerbitzu-paketeak merkaturatu ahal izatea, hala nola ostalaritza-bonuak eta norberaren zainketa-bonuak. "Gabonetako opari gehienak Sondikako merkataritzan eta ostalaritzan erostea lortu nahi dugu". Jakinarazitakoaren arabera, udalak merkatariekin eta ostalariekin ipini da harremanetan, eskaintzak www.sondikagara.eus webgunean batzeko. Bestalde, 2021eko lehen hiruhilekoan bonu-kanpaina sustatuko da. Aipatu dutenez, garai horretan gutxi kontsumitu ohi da eta herritarrek erostera animatu nahi dituzte.



Loiuko memoriaren egutegia

Herriko memoriari eusteko, Loiu Laztana elkartek urteak daramatza gogorlan egiten. Horri lotuta, eta urtero moduan, Loiuko argazkiek osatutako egutegia eta DVDa kaleratu ditu. Egutegiaren azalean 12 baserri batu dira. "Baserriak oso garrantzitsuak izan dira Loian: Lastetxe, Orue, Marike-Bekoa... Batzuk desagertu dira, esate baterako, aireportuko lanen ondorioz", esan digu Jesus Sustatxa elkarreko kideak.

Baserriez gainera, beste argazki batzuk ere jaso dira egutegian, eta horietan, besteak beste, soldadutzara joan ziren gazte batzuk, herriko umeak eta dantzariak azaltzen dira. Era berean, Zamarripa auzoko argazki bat ipini da azken orrial-

dean. "Argazki berezia da, bertan Loiuren, Sondikaren eta Erandioren arteko topagunea agertzen delako".

Argazkiek Loiuko bilakaera erakusten dute, izan ere, egutegiko orrialde bakoitzean argazki bi jarri dituzte: bata, aspaldikoa; eta bestea, gaur egungoa. "Antzinako argazkia hartu dugu oinarritzat, eta berria atera dugu. Ez da erraza izan, koronabirusa dela-eta oztopo handiak izan ditugulako. Hala ere, eskertzekoak dira loiuiztarrek adierazi dizkiguten jarrera eta laguntza".

Bestalde, DVDan 2017an herrian antolatutako hainbat ekitaldiren laburpena jaso da: nekazaritza-azoka, bendejerei egindako omenaldia, jubilatuen Gabonetako bazkaria...

Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia
aurretiko hitzordua
solariuma

9 4 4 5 4 3 5 8 0

Gorbea 8, Derio 48160

TXORIERRIKO AEK ■ euskaltegia



Zorionak eta urte berri on!

Eutsi **euskaraz** berba
egiteko **konpromisoari**

aek

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

Arteaga ESTANKOA



Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel: 94 454 15 41
estancoderio@gmail.com

Ezohiko Gabonak



a: Sondikako Udala

COVID-19ak eragindako osasun-alar- mak ohiturak eta jokabideak aldatzera behartu gaitu eta Gabonak ez dira sal- buespena izango. Pandemiaren bilakaerak planak hondatzen ez baditu, erakundeek eta elkarteek ekitaldiak antolatu dituzte datozen egunetarako; hori bai, aurreko urteetan baino ekitaldi gutxiago egongo dira eta zorrotz jarraitu beharko diegu osasun-eta segurtasun-neurriei, guztion osasuna bermatzeko.

Sondikako umeek, esaterako, hitzor- dua eskatu behar izan dute Olentzero eta

Mari Domingi agurtu ahal izateko. Orot- ara bost txanda antolatu dira Erretiratuen Etxean, ume guztiek pertsonaia magi- koekin euren nahiak partekatu ditzaten. Loian, bestalde, txanda bi egongo dira eta familiek telefonoz deitu behar izan dute, Olentzeroren eta Mari Domingiren saski magikoan gutuna uzteko.

Derion, Gabon solidarioak ospatuko dituzte aurten. Urtarrilaren 10era arte zenbait ekitaldi egingo dira bertan eta ba- koitzak hiru euro balioko du; batzen den dirua herriko elkarte bati emango diote. Sarrerak www.deriokoudala.net webgu- nean ipini dituzte salgai. Beste alde bate-

tik, Olentzerok eta Mari Domingi sorpre- sa emango diete derioztarrei abenduaren 23an eta, hori dela eta, herritar guztiei es- katu diete egun horretan 20:30ean etxean egoteko. Zamudion ere ekintzak antolatu dituzte, hala nola ipuin-kontalaria eta tai- ler teknologikoak. Ekintza guztiek edukie- ra mugatua dute eta beharrezkoa izan da alde aurretik izena ematea. Halaber, he- rriko umeek Olentzero eta Mari Domingi agurtzeko aukera izango dute; horretar- rako, lau txanda antolatuko dira herriko frontoian.

Aurten, Olentzero eta Mari Domingi ezin izango dira Lezamatik kalejira irten. Hala ere, abenduaren 24an umeak agur- tuko dituzte frontoian, 18:00etatik aurre- ra. Gainera, beharrezkoa bada, txanda bi egingo dituzte segurtasun- eta osasun- neurriei jarraituta. Era berean, ahal dela, urtarrilaren 4an eta 5ean Umeen Gabo- netako Parkea atonduko dute frontoian, baina horrek formatu berezia edukiko du eta, besteak beste, umeentzako tailerrak eta ipuin-kontalariak egongo dira egoera- ra egokituta.

Pandemiaren eraginez, Larrabetzuko Kultur Bilguneak bertan behera utzi behar izan ditu ekitaldi batzuk, adibidez, aben- duaren 25ean ospatu ohi duten bertso- saioa eta Gabon Zaharreko kotilioia. Olen- tzeroren eta Mari Domingiren Bila ekintza egokitu behar izan dute, eta abenduaren 24an saio bi egingo dituzte frontoian, al- dez aurretik izana emanda, herriko ume guztiek pertsonaia magikoak agurtu di- tzaten.

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologia
Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar baten
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
arregandik gertu
ABOLKULARITZA - TASAGROA
ALOKATZEAK - ENKALDATZEAK
SALEPROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

BASALBEITIKO TXAKOLINA
Bizkaitxo Txakolina
Gaitolizta auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Itxita, etxetik irten barik; eta kalean? Ilarak. Ilarak, supermerkatuan; ilarak, farmazian; ilarak, okindegian... Eta itxaroten dugun bitartean, eguna badoa; denbora pausatzen da eta jendeak sortutako ilaran munda bat agertzen da: beldurra, mesfidantza, antsietatea, begiradak, nekea... Eta bat-batean, irribarre bat!

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txanem etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 58
a.amondarain@euzkairat.net

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kirmasajen

clínica dental ZAINDUZ hartz klinika

Txanem etorbidea, 9 - Loria | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 637 79 54 45
info@dentelzainduz.com | www.dentelzainduz.com

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

“Umorea oso terapeutikoa da”

ZUHAITZ GURRUTXAGA | aktorea

Zuhaitz Gurrutxaga domekero agertzen zaigu telebistan *Herri txiki, infernu handi* saioan, baina gaztetan 15 urte eman zituen futbolarari profesional moduan. Gaur egun, jarraitzen du futbolarari lotuta, baina beste arlo batetik, ezohikoa erabat, umoretik. Izan ere, duela zazpi urte utzi zion futboleko jokatzeari, baina bere eskarmentua *Futbolistok* bakarriketan jaso zuen eta herriz herri dabil saioa aurkezten. Azkenetako bat Lezama izan da.

t: Gaizka Eguzkitza

Zelan Lezaman?

Ondo, eskerrak eman nahi dizkiot Lezamako Udalarari, nire bakarrikzeta kontuan hartu izanagatik. Arraroa izan zen antzezlanaren elizaren gurelako: ez da batere ohikoa, nahiz eta *Herri txiki, infernu handi* saioan askotan elizetan ibili. Tira, publikoa berehala egokitu zen, eta ni ere bai.

Ospea batez ere ETB1eko *Herri txiki, infernu handi* saioak eman dizu. Herri txikiak benetan badira infernu handiak?

(Kar-kar) Ez, inondik inora. Eta saioaren bukaeran guztiz kontrako esaten dugu: “Esaera zahar batek dio, herri txiki, infernu handi. Hau infernua bada, biba infernua eta biba zuek!”.

Saioari esker Txorierrin eza-gutzen duzu. Zer deritzozu?

Bai, Larrabetzun, Zamudion eta Lezaman izan gara. Eta gainera, Zamudiokoa denboraldiko gehien ikusi zen saioetako bat izan zen. Derio ere ezagutzen dut, irailean Baserri Antzokian izan nintzelako. Gustura ibili naiz beti, bertako jendeak dena eman didalako.

Lezaman *Futbolistok* bakarrikzeta antzeztu zenuen. Zertan datza ikuskizuna?

“Txorierrin gustura ibili naiz beti, bertako jendeak dena eman didalako”




“Ez zait besteen lepotik barre egitea gustatzen; nire kontura barre egin nahiago dut”

Umorezko bakarrikzeta da, guztiz autobiografikoa. Batez ere futbolarari profesionala izan nintzen garaia jorratzen dut ikuskizunean. Eta bertan futbolariek normalean esaten ez dutena esaten dut: zer sentitzen duzun kanporatzen zaituztenean, gol bat zure atean sartzen duzunean... Izan ere, askotan futbolariek buruz ikasitako lau klixe ikasten ditugu eta hori baino ez dugu esaten. Gainera, izenburuak azaltzen duen moduan, TOK sindromea buruz, hau da, nahasmendu obsesibo-kompulsiboari buruz, ere hitz egiten dut. Gaztelaniaz TOC esaten zaio eta euskaraz TOK esatea zuzena izan ez arren, lizentzia poetikoa hartu dut. Interesgarria iruditzen ziztzaidan gai hori mahai gainean jartzea.

Zelangoa da zure umorea?

Ez zait besteen lepotik barre egitea gustatzen; nire kontura barre egin nahiago dut, ordea. Eta agertokian eskarmentua hartu dudanean, konturatu naiz publikoaren iritziz miseriak garaipenak baino askoz barregarriagoak direla. Behin txantxa bat egin nuen lorpen baten inguruan eta inork ez zuen ezta irribarre txiki bat ere erakutsi. Eta txiste ona zen (kar-kar). Beraz, nire miseriei buruz hitz egiten dut. Nire ustez, umorea



Zuhaitz Gurrutxaga Loiola (Elgoibar, 1980) Errealeko beheko mailetan egin zen futbolari. Azkenean, 1999an, ametsa bete zuen eta Lehenengo Mailan egin zuen debuta. "Clementek eman zidan lehenengo taldean jokatzeko aukera eta

“Dena zor diot Clementeri”

dena zor diot horregatik. Ez da oso gizon maitekorra, baina nirekin gertua izan zen eta asko estimatzen dut. Zarautzen bizi omen da, ea berriro hortik ikusten dudana eta agurtzen dudana. Antzezlanean berari buruz hitz egiten dut, noski, eta, kartelean, omenaldia egin diot, beheko aldean San Clementeren marrazkia agertzen delako, baina ez benetakoa, Javier Clementeren aurpegia duena baizik. Dena biribiltzeko, azaroaren 23an jaio nintzen, San Clemente egunean, alegia (kar-kar)".

Zuhaitzek ez zuen Lehenengo Mailan luze jokatu eta batez ere Bigarren eta Bigarren B Mailan aritu zen 15 urteko ibilbidean: Algeciras, Rayo Vallecano, Real Union, Lemoa, Zamora eta Beasain. Gipuzkoarrak lorpen bi goraipatzen ditu: batetik, 2003an Ligako txapeladunordetza Errealarekin; eta bestetik, 2008an Bigarren B Mailako Real Union taldeak Erreal Madrild Kopatik kanporatu izana. Aipatzeko beste kontu xeblebre bat izan zen Lezaman,

Marcelo Bielsa Athleticen entrenatzailearen eskutik. "Deitu zidan bakarrikzeta futbolarien aurrean antzetzeko; baietz esan nion, baina musutruk egingo nuela, klubean lagunak nituelako. Hala ere, nire jarrera ez zitzaion batere gustatu, bere ustez kultura ordaindu egin behar delako. Esan zidan hurrengo egunean berriro deituko zidala. Azkenean prezioa jarri nuen eta bakarrikzeta egin. Nire publikorik onena Athleticen jokalariaik izan ziren, nire bakarrikzetarekin bat egiten zutelako".

*"Nire publikorik onena
Athleticen jokalaria
izan ziren, nire
bakarrizketarekin
bat egiten zutelako"*

oso terapeutikoa da: Lehenengo Mailan debuta egin nuen egunean txartel gorria erakutsi zidaten eta oso txarto pasatu nuen. Horren kontura txantxak egiten hasi nintzenean, arazoa desagertu egin zen.

Hainbat urtetan futbolaria izan zara, baina orain, aktorea. Zelan egin zenuen salto batetik bestera?

Futbolaria izan nintzenean, gitarra jo-
zten ikasi nuen. Beranduago, kantik idaz-
ten eta kontzertuak ematen hasi nintzen.
Kanten artean azalpenak ematen nizkion
publikoari: zertan zetzan hurrengo kanta,
zelan konposatu nuen... Eta jendeak barre
egiten zuen. Apurka-apurka konturatu
nintzen bakarrizketa-tarte horiek kantik
eurak baino arrakastatsuagoak zirela. Ba-
tetik, polita zen, alde komiko hori ogibide
bihurtzeko aukera ikusi nuelako; bestetik,
aldiz, garratza zen, kantik idaztea kosta-
tzen zitzaidalako eta jendeak horiek ain-
tzat hartzen ez zituelako.

Harrezkero, zer gertatu zen musika taldearekin?

Vanpoppel zuen izena, pop musika egiten genuelako eta Van Poppel txirrindulari holandarra izugarri gustatzen zitzaidalako. Ulertu nuen talenturik ez nuela eta musika bertan behera utzi nuen.





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
 Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
 Luride Ikastetxea eta Sigaren Ikastegia Ikastetxea

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriala Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Librango Italo Kalea, 1
 48100 - DERO

Tel.: 94 403 40 60
 Fax: 94 403 40 61

info@txorierri.net
 www.txorierri.net

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

ENDARRAREN GARAPEN
 ETA ABISGUTURA DAHA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
 ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS



Pasaia Ikastetxea
 C/O 13 O 14 de C
 rue Gaudin
 48100



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA




IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



IKASTETXEA
 EUSKO JAURLARITZA



t/a: Itxaso Marina

Proiektuaren gakoak Nieves Zabala enpresako zuzendariak eta Iratxe Gonzalez zuzendari teknikoak azaldu dizkigute. "Aspalditik dakigu erradiazio ultramorea germizida dela, baina egitasmoaren helburua izan da jakitea ea baliagarria izan litekeen SARS-Cov-2aren hedapena gutxitzeko. Argi-Tech enpresa ingeniari-tza eta diseinu-arloan arduratu da, eta gu hiru esparrutan: bakterioak, onddoak eta birusak hiltzeko beharrezko erradiazio-dosia, dosia ezartzeko segurtasun-sistemak eta tratamenduaren eraginkortasuna".

Egitasmoa apiril-maiatzean hasi zuten eta, gaur egun COVID-19ari buruz hainbat ikerketa egon arren, garai hartan ez zegoen informazio askorik. "Laborategian ez dugu birusik aztertzen eta, hortaz, bakterik erradiazio ultramorea ahalmen bakterizida eta fungizida egiaztatu ahal genuen. Oztopa gainditzeko, laborategi

"Birusak eta koronabirusak beste mikroorganismo batzuk baino errazago ezabatzen dira"

Argi ultramorea COVID-19aren aurka


Biotalde Derioko enpresak elikagaien eta ingurumenaren segurtasunean dihardu, eta, Argi-Tech enpresarekin elkarlanean, argi ultramorea erabiltza SARS-Cov-2 birusa –COVID-19a sortzen duena– leku itxietatik desagerrarazteko ahalmena duen tratamendua garatu du. Biotalderen ardura da tratamendua eraginkorra dela ziurtatzea.

batekin jarri ginen harremanetan, SARS-Cov-2 sintetikoak hornitu gintzaten. SARS-Cov-2 sintetikoa ez da kutsakorra, zeren birusa erreplikatzeko ahalbidetzen duten geneak kenduta baitu".

Erradiazio ultramorea bakterioak, onddoak eta birusak hiltzeko gai dela ziurtatzeko, erreferentziatzeko mikroorganismoak erabili dituzte, eta hainbat proba egin dituzte, harik eta mikroorganismo horiek era onargarrian ezabatzeko beharrezkoa den gutxieneko dosia topatu duten arte. Nolanahi ere, bizi dugun egoerak horrela eskatuta, dosiak batez ere SARS-Cov-2 birusa ezabatzeko zuzendu dira. "Birusak eta koronabirusak beste mikroorga-

nismo batzuk baino errazago ezabatzen dira; beraz, SARS-Cov-2 birusa ezabatze-ko nahikoak diren dosien –eta apur bat gehiago– alde egin dugu, nahiz eta jakin izan dugun behar bada dosi horiek ez direla nahikoak, esaterako, oso lizun-kopuru handia kentzeko".

Argi ultramorea finkoak edo mugikor- rakk izan daitezke, eta edozein toki itxitan ipini. Instalazioa egin ondoren, Biotaldeko adituen txanda da. "Lekura mikroorga- nismo batzuk eramango ditugu eta tra- tamendua ezarriko diegu. Laborategira ekarriko ditugu eta aztertuko dugu tra- tamendua jaso aurretik zenbat mikroor- ganismo zeuden, eta tratamendua jaso



Onddoak, tratamenduaren aurretik eta ostean

*Argi ultramoreak
finkoak edo mugikorrak
izan daitezke, eta
edozein toki
itxitan ipini*

ondoren zenbat dauden. Gainera, tokiko puntu kritikoak zeintzuk diren aztertuko dugu; hau da, SARS-Cov-2 birusaren kontzentrazio handiena non egon daitekeen: isotopo bat erabiltza azalen lagina hartu, eta laborategian ikertuko dugu SARS-Cov-2 birusik dagoen. Airearen lagin bat ere hartuko dugu, eta tratamenduak han dauden mikroorganismoak gutxitzeko duen ahalmena aztertu. Era berean, tenperatura eta hezetasuna neurtuko ditugu eta ozono-abarrik ez dagoela konprobaturiko dugu. Horiek guztiak kontuan hartuta, tratamendua eraginkorra dela ziurtatuko dugu; emaitza zazpi egunen buruan ematen dugu”.

Osagarria

Besteak beste, lekuaren neurrien eta bertan egiten den jardueraren arabera kalkulaturiko dira tratamenduaren dosia eta iraupena. Edonola ere, gomendagarria da tratamendua gutxienez egunean behin ezartzea. Gizakientzat ez da kaltegarria; hala ere, tratamendua lekuan pertsonarik ez dagoela egin behar da. “Ozono-kopuru txikia isuri daiteke eta, horregatik, iragazki bat ipintzen da argi ultramoreetan, ozono-kopuru txiki hori kanpora ez ateratzeko”. Horri lotuta, adituek gogora ekarri dute argi ultramoreak profesionalek ipini behar dituztela eta tratamendua ere be-

*Tratamendua osagarria
da eta ez du osasun-
eta segurtasun-
neurrietatik
salbuesten*

raiek ezarri behar dutela, “erradiazioa germenak egon daitezkeen leku guztietara ailegatu dadin”. Tratamendua osagarria da eta ez du osasun- eta segurtasun-neurrietatik salbuesten, hala nola maskara janztea eta pertsonen arteko tarteari eustea. “Ez dago COVID-19rik gabeko lekuri: birusaren hedapenaren aurrean, tratamenduak segurtasun handiagoa ematen du”.

Euren ustez, aire-kalitatearekiko kezka geratzeko etorri da. “Orain arte, edaten dugun uraren eta jaten ditugun elikagaien kalitateak kezkatu gaitu eta orain hasiak gara leku itxietan arnasten dugun airearen kalitateaz kezkatzen. SARS-Cov-2 birusaren aurretik ere arnas gaixotasunak hartzen ziren leku itxietan, baina ez ginen kontziente; orain konturatu gara barruko airearen kalitatea ona izatea garrantzi handikoa dela”.

Aurreko lerroetan esan dugunez, argi ultramoreek birusak hiltzeko duen ahalmena SARS-Cov-2 sintetikoak erabiltza aztertu dute. “Birusak ezabatzeko alderdi horretan sakontzen jarraitu nahi dugu eta, horretarako, Gaiker zentro teknologikoarekin elkarlanean arituko gara honik aurrera”. Instalazioen monitorizazioak eta haiei jarraipena egiteak ere datuak emango dizkiete barruko airearen kalitatea hobetzeko eta tratamenduak momentuko egoerara eta beharrianetara egokitzeko.

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

jarraitu f t i

KILZA
ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENA

Larrabarri ibilbidea 1, behea
48160 DERIO
669 51 63 11 / 94 474 46 29
bilzaelectricidad@gmail.com

X Kotixa Plaza, 2 - 4 D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19 X



ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781



ERREKA
JAT ETXEA
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06



- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55



ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 beheka Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA
Aretza doktorea, 11.-1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



Lezamatik Tokiora

t/a: Gaizka Peñafiel

Xabi Solano Maizak *Trikitixa Liburua III* argitaratu berri du, eta horrekin amaitu da 2014an abiatu zen trilogia. Niretzat ohorea izan da horrenbeste miresten dudan lagunaren liburuak argazkiz janzte. Izan ere, partiturez gainera, 2013. urtetik 2020. urtera bitartean nik egindako ehunaka argazki daude liburuen barnean. Zazpi urtean 200 bat emanaldi izan dira Esne Beltza musika-taldearekin eta Xabiren beste proiektu batzuekin: Hernanitik Bartzelonara, Leitzatik Gandiara, Lezamatik Tokiora... Milaka kilometro eta esperientzia, tartean.

Musikazaleek badakizue Solanok Txorierrirekin lotura zuzena duela eta sarritan gu-rean izan dela. Gainera, *Erre Zenituzten* arrakastatsua Larrabetzun egin genuen. Beraz, espero dut laster berriz ere Txorierrin bere musikaz zuzenean gozatu ahal izatea. Bien bitartean, bere kanta ezagunenak ikasi nahi izanez gero, liburuetan aurkituko duzue nola. Aupa trikitia!





Hizkuntza-ohiturak astintzen

Aurtengo Euskaraldian Txorierrin ia 1.700 lagunek parte hartu dute eta 15 egunetan zehar hizkuntza-ohiturak astintzen aritu dira. Aipatzekoa da izena eman duten pertsonen % 62 emakumezkoak direla eta % 37 gizonezkoak. Norbanakoez gain, taldean ere parte hartzeko aukera egon da, ariguneen bidez, eta Txorierrin 130 elkarte, enpresa, denda eta abarretan euskaraz egiteko guneak sortu dira. Egoera berezi honetan ere, Euskaraldia aurrera atera da. Orain, 365 egunetan zehar euskaraz egiten jarraitzeko erronka dugu. Azken batean, paparrean pina izan gabe ere, gehienak pozik jarriko dira lehen hitza (eta hurrengoak) euskaraz egiten badiugu. Ondorengo honetan parte-hartze datuak ikus ditzakezue, herriz herri:

	GUZTIRA	AHOBI	BELARRIPREST
DERIO	372	276	96
LARRABETZU	432	358	74
LEZAMA	264	218	46
LOIU	144	104	40
SONDIKA	262	185	77
ZAMUDIO	211	152	59
TXORIERRI	1.685	1.293	392

Gizarte esku-hartzeak estandarizatu daitezke?

Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartze Taldea 1994tik ari da lanean Txorierriko Mankomunitatean

Gizarte-hezitzaileen taldea

Adingabeak dituzten familiei laguntzen eta orientazioa ematen diegu, eta 2017az geroztik banaka ere bai, ongizate handiagoa lortze aldera. Familia eta gizabanako berdinek ez dagoelako premisa eztabaiaezinetik abiatuta, egoera zehatz bakoitza aztertu ondoren, errealitate bakoitzera egokitutako esku-hartze ildoak marrazten ditugu, baliabide propioak sustatuz eta jokabide funtzional batekin bateragarriak ez diren jarduteko moduak aldatzen saiatuz, betiere bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuz eta balioetsiz.

Horregatik, galdera hau da: estandarizatu al daitezke esku-hartzeak, eta idatz al daiteke artikulatu bat hezkuntzako adituen etiketarekin, orientatzeko, aholkatzeko eta jarduteko jarraibideak emateko, egoera jakin batzuetan lagungarri izan daitezkeen? Galdera hori bereziki egokia da normaltasun berri honetan, estandarizazioa baita jarraibide nagusia.

Eta horren aurrean, hezitzaile garen aldetik, inoiz baino arduratsu handiagoa dugu pentsamendu kritikoa sustatzeko, baita intuizioaren aurkakoa ere. Azken hilabeteotan aldaketa asko izan dira, eta gizabanako, familia eta gizarte gisa egokitu egin behar izan dugu. Legez ezarrita. Guztion onerako.

Oro har, haurtzaroan egokitze gaitasun handiagoa dagoela uste da, eta ideia hori hazten ari diren garunen neuronon plastikotasun ezagunetan oinarritzen da. Egoera horretan, askok diote umeak oso ondo moldatu direla normaltasun berri horretara.

Konfinamenduan, kutsatze-bektoreak zirenean, eta haien etxealdia, legeak aginduta eta guztien onerako,



erradikalena izan zenean, harritu egiten ginen zirkunstantzia horiek nahiko ondo onartzen zituztelako. Gure ustez, neurri batean eta egoera batzuetan edo askotan, beren familien denboraz eta arretaz gozatzeko gai izan zirelako. Baina zalan-tza sortzen da, era berean, hori ez ote zen izan, eta neurri batean izaten ari den, umeei kostu emozional handia ekarri dien egokitzapena.

Azken batean, ez ote goaz urrunegi gizarte gisa zenbait arau kontraesankorren aurrean? Izan ere, egoera paradoxikoak bizi izan ditugu: umeek maskara eraman behar dute korrika egiteko, salto egiteko eta jolasteko, eta helduok, bien bitartean, taberna inguruetan maskara kenduta ikusi ditugu lasai-lasai.

Edonondik datorren informazio itsu-itsuan sinestu dezakegu eta horrela transmititu gure seme-alabei. Edo pentsamendu kritikoa garatzen lagundu ahal diegu, sormena bultzatzeko, hain erraz manipulatuz ez ditzaten.

Aukera bakoitzak abantailak eta desabantailak ditu, eta hautaketa pertsona eta familia bakoitzaren berezitasunaren arabera izango da, gaur egun inoiz baino estandarizatuago dagoen gizarte honetan.



Jostailuak Gabonetan, oparirik gustukoenak. Nola aukeratu ondo?

Gabonak heldu dira gure etxeetara, etxeko txikiei ilusiorik handiena sortzen dien garaia. Eguberriekin batera, Olentzero, Aita Noel (Bizarzuri) eta Errege Magoak datoz, goatzeko hainbat opari eta jostailu dakartenak beso azpian. Baina, edozein jostailuk balio al du? Zer oparitu ahal diegu gure seme-alabei opari horiek egokiak direla ziurtatzeko?

M. Blanco, Mankomunitateko SIPEko psikologoa

Artikulu honetan zenbait gako eman-
go dizkizugu zure aukeraketan asma de-
zazun. Bizi dugun kontsumo-gizartean,
neurrigabekeria da joera nagusia, eta hori
gure umeei oparitzen dizkiegun jostai-
luei ere aplika dakieke. Gehiegi oparitzea
kaltegarria da, adingabeek dauzkaten
gauzen balioaren perspektiba galtzen
dutelako. Beraz, lehenengo jarraibidea
honako hau izan beharko litzateke: NEU-
RRIZ OPARITU. Zenbat eta gauza material
gehiago izan, gizakiok, oro har, garrantzia
kentzen diogu horiek lortzeko egin beha-
rreko ahaleginari, eta umeez ez diote ihes
egiten premisa horri.

GOGORATU, JOSTAILU KOPURUA BAINO GEHIAGO, HAIEKIN JOLASTEN EMATEN DUGUN DENBORA DELA GEHIEN BALORATUKO DUTENA.

Gure jostailuak zein adinetarako di-
ren ere kontuan hartu behar da; izan ere,
jostailu batek garapena eta ikaskuntza
estimulatzeko funtzioa bete dezan, haz-
kundearen etapa bakoitzaren ezaugarriak
jakin behar dira.

0 eta 1 urte bitartean; une honetan
garrantzitsuenak da adingabeen segurtasuna
eta jostailuek euren zentzumenak
estimulatzeko. Egokienak izango lirateke
peluxezko panpinak eta jostailu mugiko-
rrak, haien arreta erakarri eta sentsazio
berriak esperimentatzeko ahalbidetzen du-
ten soinu eta argiak dauzkatenak.

1 eta 3 urte bitartean; garapen psi-
komotorraren eta ahozko hizkuntzaren
hasierako etapa da; dagoeneko ibiltzen
hasi dira eta dena ukituz eta jarraituz en-
trentenitzen dira, espazio berriak arakatu-
z. A proposak dira piezadun jolasak, libu-
ruak, ipuinak, trizikloak, baloi bigunak,
arraste-jokoak, musika-tresnak eta panpi-
nak. Koloreak, formak eta soinuak bereiz-
ten laguntzen dieten jolasak dira egokiak,



baita mugimenduetan segurtasuna eta
trebetasuna lortzen laguntzen dietenak
ere.

3 eta 6 urte bitartean; umeak han-
diagoak dira, sozializatzen hasten dira,
taldeka jolasten dira eta arauetara buruzko
nozioa izaten hasten dira. Euren gaitasun
komunikatibo, fisiko eta intelektualak
hobetzen laguntzeko plastilinak, mahai-
jokoak, arbelak, puzzleak, eraikuntzak,
bizikletak, jolas musikalak, ipuin-liburuak,
pinturak, panpinak eta baloiak oparitu
diezazkiekegu.

6 eta 10 urte bitartean; adin horre-
tan trebetasun asko eskuratu dituzte.
Badakite irakurtzen eta idazten, sozializa-
zioaren arauetara jabetzen dira, talde-jokoak
eta kirolez gozatzen dute. Beraz, egokiak
dira puzzle konplexuagoak, eraikuntza-
eta mahai-jolasak, eskulanak, imitazio-
jolasak, dantza-jolasak, kirol-jolasak eta,
jakina, adin horretarako egokiak diren
liburuak.

11 urtetik aurrera; adin horretan pix-
kanaka haurtzarora utzi eta nerabezarora
sartzen dira. Etapa horretan, lagunek ga-
rrantzi handia hartzen dute, eta mundu
afektiboak ere bai. Etapa honetako jolas

eta jostailuek balioak transmititzen lagun-
du behar dute, besteak beste, besteekiko
errespetua eta ahaleginaren garrantzia,
bizi-ohitura onak eta gizarte-harreman
osasungarriak. Arau-jokoak, kirol-jokoak,
argazki-kamerak, bideo-joko hezigarriak,
liburuak, bizikletak, estrategia-jokoak, dan-
tza-jokoak edo karaokeak gomendatzen
dira.

Jostailuak oparitzeko funtsezkoak di-
ren beste jarraibide batzuk ere badaude:

JOSTAILU SEXISTAK SAHESTEA, ge-
nero-estereotipoak betikitzen dituztenak.

**JOSTAILU BORTITZAK EDO ARRAZIS-
TAK SAHESTEA,** agresibitatea eta desber-
dintasunak sustatzen dituztenak.

**GOGORATU EZ DAUDELA JOSTAILU
BATZUK "MUTILENTZAT" ETA BESTE BA-
TZUK "NESKENTZAT".** Jostailu berberak
erabiltzeko eskubidea dute.

Eta mugikorra, noizko?

Zoritzarrez, Gabonetako opari nagusia
izan ohi da, baina adingabe bati mugikorra
erosi aurretik gogoratu ezazu, nahiz eta ja-
kin ez dela horrela izaten, espezialistok go-
mendatzen dugu adingabeek 16 urte bete
arte mugikorrak ez izatea.

Guztion hurbil; guztiontzat

Pandemia dela eta, besteak beste, gizarte-harremanak eta beharrezkoak ez diren joan-etorriak murrizteko aholkua eman digute. Ezinbestekoa da jende-oste handiak ekiditea eta seguru erostea. Txorierrin, etxean, inon baino seguruago erosi eta kontsumituko dugu, bertoko merkatariek eta ostalariek osasun- eta segurtasun-arauei zorrotz jarraitzen baitiete guztiok zaintzeko. Gainera, denetarik dute guztiontzat, eta inon baino hobeto tratatzen gaituzte.



a: www.1zoom.me

Menua prestatu

ALAIA FRUTA-DENDA, Zamudio (946 850 585)
ALBERTO HARATEGIA, Zamudio (944 520 825)
CARREFOUR, Zamudio (914 908 900)
INES JANARI-DENDA, Larrabetzu (944 558 433)
IRATXO GOZOTEGIA, Sondika (946 458 919)
SARRIKOLA OGITEGIA, Larrabetzu (944 558 337)



a: Candace McDaniel, stocksnap.io webgunean

Ederra zara!

ANE ILE-APAINDEGIA, Derio (944 543 580)
AMAR ILE-APAINDEGIA, Zamudio (944 520 419)
GALAIISA ILE-APAINDEGIA, Sondika (944 711 051)
GOIZALDE ILE-APAINDEGIA, Larrabetzu (944 558 144)
IZ ILE-APAINDEGIA, Zamudio (946 036 943)
LEIRE BEGOÑA ILE-APAINDEGIA, Derio (944 54 26 32)
M.A. LLODIO ILE-APAINDEGIA, Zamudio (946 520 270)



a: www.glotonear.com

Buruhausterik ez!


ARETXARTE JATETXEA, Zamudio (944 036 900)
AURREGOITI JATETXEA, Loiu (944 532 440)
BIDEGORRI TABERNA-KAFETEGIA, Zamudio (944 522 675)
ERREKAONDO JATETXEA, Zamudio (944 521 419)
GAMINIZ JATETXEA, Zamudio (944 317 025)
GAZTEDI JATETXEA, Lezama (944 554 422)
IAZI JATETXEA, Derio (944 542 956)
LEJARRENE JATETXEA, Lezama (944 556 546)
TIK TAK JANARIA ETXERA ERAMATEA, Derio (944 545 555)



a: www.cltube.com

Autoa beti prest

ASTIKENE MOTOR TAILERRA, Derio (946 451 781)
FORD GOIRI KONTZESIONARIOA, Sondika (944 532 515)
NIRE AUTOOCASION KONTZESIONARIOA, Derio (944 54 51 92)



a: pixabay, pexels webgunean

Inakaskuntza

AEK TXEPETXA EUSKALTEGIA, Derio (94 454 39 67)
ESTUDIOS 10 IKASTEGIA, Derio (944 545 013)
OAKLAND, INGELES-IKASTEGIA, Zamudio (946 522 857)
POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI, Derio (944 034 060)
TXORIERRIKO UDAL-EUSKALTEGIA, Derio (944 54 00 62)



a: www.bobato.co.uk

Oparitzeko

ARTEAGA ESTANKOA, Derio (944 541 541)
ARTILE ARTEAN ARTILE-DENDA, Derio (946 240 343)
GORBEIA MERTZERIA, Zamudio (946 559 006)
IMAZ ESTANKOA, Derio (944 540 769)
IPUINAK JOSTAILU-DENDA, Derio (946 455 533)
RUBEN BITXITEGIA, Zamudio (944 521 449)
TXIMELETA ARROPA-DENDA, Derio (944 541 435)



a: www.reformasdiegobermudo.es

Enaberritzeak

BILZA ELEKTRIZITATEA, Derio (944 74 46 29)
DERIO ELEKTRIZITATEA, Derio (944 54 31 48)
ELORRIETA INSTALACIONES, Derio (639 579 848)
HARRI BILBO HARGINTZA, Lezama (944 52 10 71)
IÑIGO BARCENA IGELTSEROTZA, Zamudio (944 522 910)



a: www.pennystocksnews.com

Osasuna

ALDEKONE HORTZ-KLINIKA, Derio (944 54 15 87)
A. AMONDARAIN GINEKOLOGOA, Derio (944 544 498)
IDOIA ZUBIETA HORTZ-KLINIKA, Zamudio (944 521 370)
IBARRONDO FISIOTERAPIA, Sondika (944 539 200)
IKUSLAN OPTIKA, Zamudio (944 522 818)
IZPILEN PARAFARMAZIA, Sondika (946 558 000)
ZAINDUZ HORTZ-KLINIKA, Derio (944 540 101)



a: Andrea Piacquadio,
www.pexels.com

Zerbitzuak

AUZOKIDE FINKEN ADMINISTRAZIOA, Sondika (634 41 04 70)
ENVISER ZERBITZUAK ETA INGURUMENA, Bilbo (944 243 834)
FEMADE TAXI-ZERBITZUA, Txorierri (944 800 909)
GESTION ZAMUDIO AHOLKULARITZA, Zamudio (944 52 21 41)
LOIU GURENA ZAHAR-ETXEA, Loiu (94 453 00 49)
LOREGARBI GARBIKETA-ZERBITZUAK, Derio (944 064 992)
SONDIGARBI GARBITOKIA, Sondika (944 530 049)
TOLDOS TXORIERRI, Zamudio (944 521 258)
TXORIERRI ETXE-AGENTZIA, Sondika (944 711 282)



a: Skitterphoto, www.pexels.com

Tabernak

ADARVE KAFETEGIA, Derio (946 089 531)
AMA3 TABERNA, Zamudio (946 559 369)
BASALBEITIKO TXAKOLINA, Lezama (944 556 146)
BIZKARGI TABERNA, Derio (944 541 655)
ENAITZ TABERNA, Lezama (944 554 215)
PATXI KOOP EDARIAK BANATZEA, Derio (944 522 587)



a: www.nbcnews.com

Inakurtzeko

SONDIKA LIBURU-DENDA, (944 531 6 77)
ZAMUDIO LIBURU-DENDA, (944 522 910)



a: www.nbcnews.com

Zerbait etxerako

ELEKMA ETXETRESNA ELEKTRIKOAK, Loiu (944 53 92 32)
SUIT DELUX ATSEDEN-AHOLKULARITZA, Derio (944 545 147)



a: www.ajbubb.com

Zorte on!

ZAMUDIO LOTERIA-ADMINISTRAZIOA, (944 520 959)



a: Gaizka Peñafiel

Baserrirako

LEZAMAKO KOOPERATIBA (944 556 016)
ZAMUDIOKO ETA DERIOKO KOOPERATIBA (944 541 215)



a: Liliak lora-denda

Loreak

LILIAK LORE-DENDA, DERIO (944 541 223)
YEDRA LORE-DENDA, SONDIKA (944 531 457)

**GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

**Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180**
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)
944 530 049
www.gurena.com

ZURE NEURRIRA



IÑAKI LEKERIKA**BASALBEITI TXAKOLINA (LEZAMA)**

Iñakik bodega txiki bat kudeatzen du: hektarea bi mahats ditu eta urtean 10.000 litro ekoizten ditu. Txakolinak 20 urte daramatza Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deituraren barruan. Aurten uzta txikiagoa izan da eta salmentak ere bai. "Batez ere salmenta zuzena egiten dut tabernetan. Partikularrei eta azoketara hurbiltzen direnei ere saltzen diet, baina batez ere tabernariei. Tabernak itxi egin dira eta azokak bertan behera geratu dira, beraz, salmentak izugarri jaitsi dira. Uda eta Gabonak dira garai onenak txakolina saltzeko, baina biak pasatu dira. Zorrik ez dut, autonomo bezala dagokidan dirulaguntza kobratu dudalako. Tira, aurrera egin beharko da", aipatu du Iñakik.

**FERNANDO GARCIA****NEREA GARCIA****LEJARRENE (LEZAMA)**

Familiak 18 urte daramatza Lejarrene jatetxean, Lezaman. Isabelek, Fernando-ren emazteak, ere egiten du lan bertan. "Egoera arraroa da. Lehenengo itxialdian itxita izan genuen taberna, baina menuak-eta eskaini genituen. Ekonomikoki desastre hutsa izan zen, enpresak ere itxita egon zirelako. Baina entsegu ona izan zen, berriro itxi behar izan dugunerako. Orain prestatuago ibili gara eta gehiago egin dugu lan. Ezin gara kexatu", esan du Fernandok. Eguneko menuak eskaintzen dituzte bai astegunetan, bai asteburuetan. "Pandemia guztion artean ordaindu beharko genuke, presidenteak zein gainerako guztiok, bakoitzak kobratzen duenaren arabera. Gaur egun, ordea, badirudi ostalariok baino ez dugula ordaintzen".

TEMARI

ANKAPALU SAGARDOLEGIA (LARRABETZU)

Temarik urte eta erdi darama sagardotegian. Menu bereziak, karta eta sagardotegiko menuak eskaintzen dituzte eta udan, baita garagardotegikoak ere (oilasko erreak-eta). "Oker baino okerrago gabiltza. Lehenengo urtea gogorra da jantoki berri batean: lan-taldea osatu, geure sukaldatzeko era ezagutzera eman... Baina gurea, are gogorragoa izan da, lehenengo urratsak ematen ibili gara eta izugarritzko ostikada eman digute". Jabeek murrizketak egin behar izan dituzte eta gaur egun hiru lagunek baino ez dute bertan lan egiten, eta jardunaldi-erdian. Lehenengo itxialdian sagardotegia itxi behar izan zuten, irekitzeak ez zuelako merezi. "Eta orain jendea kikituta dabil, hedabideek tabernan egotea metroan joatea baino arriskutsua dela esan dietelako. Eta ez dira kanpoan bazkaltzera animatzen".



NEREA ELEXPURU

AURREGOITI (LOIU)

Orain barik, kontuak aurrerago atera nahiago ditu; oraingoz lau langileetako hiru EEEtik atera ditu eta bestea % 50eko EEEn dago, "langileak berak horrela erabaki duelako". Jatetxea zabaldu du behintzat aurrera egiteko aukera-edo izateko. "Itxita geundela zergak-eta ordaintzen jarraitu behar izan dugu, eta aurrezkiak horretarako ipini; beraz, ezin gara itxita egon". Ostalaritza berriro zabaldu zen asteburuan ederto lan egin zuten, eta bezeroek ere jarrera ona agertu zuten, "baten bati maskara ondo ipintzea gogoratu behar izan arren". Edukieraren aldetik ez dute arazo handirik, baina negozio txikien egoera oso latza dela uste du. Berriro itxi behar izateari beldur dio. "Gainera, aurreko itxialdia egun batetik bestera izan zen eta jakiak erosita genituen". Familiako jatetxea 1955ean ipini zen martxan eta, besteak beste, eguneko eta asteburuko menuak eta Euskal Herriko platerak eskaintzen ditu.

GONTZAL URIARTE**MIKEL URIARTE****ADARVE (DERIO)**

Bigarren nahitaezko itxialdiaren ondoren, kafetegia abenduaren 19an zabaldu zuten berriro. "Bost lagun gara: hiru senide eta langile bi. Egoera dela eta, langileetako bat erabateko EEEn dago; bestea, EEE partzialean". Lokala eurena da eta, beraz, "ez gara oso egoera txarrean, baina, guztien moduan, diru-galerak izan ditugu". Ostalaritzan ezarritako azken neurrien harira hau esan dute: "Direnak dira; pandemia gelditu egin behar da, baina ez dugu uste ostalaritza itxiz asko aurreratu denik". Beren hitzetan, bezeroek oso erantzun ona izan dute. "Esker-tzen diegu. Batez ere nagusien hutsunea nabaritzen dugu; hala ere, euren jarrera normala da". Negozioa hirugarrenez itxi behar izateari beldur diote: "Beharbada, beste negozio-eredu bat garatu beharko genuke". Kafetegia duela 15 urte ipini zuten martxan; gehienbat gosariak, eguneko platerak eta plater konbinatuak eskaintzen dituzte.

**LAN-ESKAINNTZA****TOTOAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOAK BEHAR DU****MAKETATZAILEA****ESKATZEN DA:**

- Euskara jakitea
- Maketazio-lanetan eskarmentua izatea: Indesign, Photoshop...

KONTUAN HARTUKO DA:

- Kazetari-lanetan eskarmentua izatea
- Interneten jakintza: gizarte-sareak, webgintza...

Curriculumak aurkezteko epea:
Urtarrilaren 15era arte

Nora bidali:
aikortxori@aikor.com



ASIER ELIZEGI

GAMINIZ (ZAMUDIO)

Gabonetako eskaerak egiten ibili arren, jatetxea urtarrilera arte izango dute itxita. Hura duela 20 urte zabaldu zuten Parke Teknologikoan: aste barruan enpresa-bazkariak ematen dituzte; aste-buruetan, besteak beste, familientzako otorduak eta ezkontzak. "Irailean zabaldu genuen, baina Parkeko langileen % 75 telelanean dabilta eta diru-galerak izan genituen. Gainera, orain, Gabonetako oporrak direla-eta ez du merezi zabaltea". Hamar langile dira eta haietako zazpik EEEen jarraitzen dute. "Hiru EEEtik atera gara, zor zizkiguten oporrak hartzeko eta datorren urtean jatetxea aurrera ateratzen saiatzeko; oso ordutegi murriztua izango badugu ere". Etorkizunaz egunero pentsatzen du, esnatuta zein lotan dagoela. "EEEak urtarrilera arte izango dira indarrean: luzatzen badira, etorkizun grisa izango dugu; bestela, beltz-beltza, negozio askok ez baitute aurrera egin ahal izango".



Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDALEK
EUSKALTEGIA



**"Gabon ez daukanak,
daukanari emon"**

Abendua Euskal atsotizetan/Azkue 783

**GABON ZORIONTSUAK ETA
URTE BERRI ON!
GABONETAN ERE,
EGIZU EUSKERAZI!**



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrin.eus

Gero arte, itzuliko gara eta

Jarraian irakurriko duzuen elkarrizketa –nahi baduzue, jakina– ez da inoiz gertatu; edo ehunka aldiz, nola begiratzaren zaion. Izan ere, Rosak eta biok, Kermanek eta biok, urte hauetan guztietan askotan hitz egin dugu fikziozko elkarrizketa honetan aurkituko dituzuen gaiei buruz. Fikziozko elkarrizketa da, baina, telesail batzuetan esaten denez, benetako gertaeretan oinarrituta.

–Betikoa?

–Bai, baina utzi niri egiten; nire txanda da.

–Beti da zure txanda. Lasai; bigarren txanda egongo da eta hori zuk ordainduko duzu.

Behin terrazako mahaian eserita, edarien eta gilda biren aurrean, aire zabalean eta koronabirus gaiztotik babestuta, elkarri hainbestetan esan eta entzun dizkiogun digresioak hasi dira.

–Zer, eguna iristeko gogoz?

–Ez pentsa; triste samar nago. Lagunek eta ezagunek –batzuk erretiratuak–, baita institutuko kideek ere –erretiroa hartu gabekoak–, sarritan aipatzen didate behin laneko tresnak eskegiz gero, ze ondo egongo naizen eta munduko denbora guztia izango dudala nahi dudana egiteko. Irribarre egiten dut eta isiltzen naiz, baina ez nago hain pozik: oso zoriontsua izan naiz Hezkuntzan lanean, Lehen Hezkuntzan haur txikiekin izan naizenean zein orain helduagoekin institutuan.

–Niri ere antzeko zerbait gertatzen zait. Neska-mutilek ematen dizuten energia ordainezina da. Batzuetan nekatu egiten dira, baina, aldi berean eta kontraesankorra dirudien arren, energia ematen dute, bizitzeko gogoia, ilusioa eta errugabetasuna; eta askotan hori oso garrantzitsua da erronka berriei heltzeko. Jolasten jarraitzeko gogoia; “porque vivir es jugar y no quiero seguir jugando” dio Calamarok. Neska-mutilek mundua eta bizitza modu zabalagoan ikusten laguntzen dute, gogotsu, alaitsu. Irakasle batzuk, bizitza kexuka pasatzen duten horietakoak, energia horretaz baliatzeko eta eskerrak emateko gai izango balira, profesional

hobeak bihurtuko lirateke; irakasle onak. Giza harreman guztietan hartu-eman bat dagoela ulertzeak laguntzen du gure lana ondo egiten. Irakasleok ematen dugu, baina jaso dezakezuna estimatzen badakizu, asko biltzen dugula konturatzen zara. Edozein lanetan gertatuko da; nik hau bakarrik ezagutzen dut. Eta gustura egin dut, ondo egiteko ezinbestekoa den gogobetetasun-dosi hori jasoz.

–Beti pentsatu izan dut, hainbeste urtean egin duguna ondo egiteko –eta ez dut esan nahi beti ondo egin dugunik, ezta gutxiagorik ere–, edozein ikaslerengan zerbait ona bilatu eta aurkitu behar dela. Gustuko duzun zerbait bilatu eta aurkitu nahi izatea. Hala, haur edo nerabe hori gure denbora merezi duen eta gustura gure esfortzua ematen diogun norbait bihurtuko da: ezin dugu ahaztu ikasle guztiei erantzun behar diegula.

–Horixe da gure lana ondo egitea; eta ondo egiteak zuri ere egiten dizu on. Bola bat da. Bikaina da gure lana ondo egiten dizun eta aberasten zaituen zerbait moduan ulertzea. Gozatu egiten duzu; eta normalean zerbait egiten gozaten baduzu, gogo hori helarazten duzu. Hezkuntzan ezinbestekoa da gogo bizia helaraztea. Gainera, lanean gozatzea gutxienez bizitzaren heren batean gozatzea da, lanean ordu asko pasatzen baitugu. Ez da gutxi.

–Ikasleez gainera, lankideek ere lagundu didate lanaz gozatzen; zuk, haien artean. Hezkuntza gehienbat emakumeen lana izatea oso aberasgarria da bertan lan egiten dugunontzat; irla bat, bizi izan garen eta bizi garen munduan. Batez ere emakumeen giroan lan egiteko, ideiak



trukatzeak eta lagunak egiteko aukera izateak aberastu nau; moldatu nauela uste dut. Eskerrak.

–Ikasle gatazkatsuekin luzaroan lan egin izanaz ere bereziki harro nago –jarreraz ari naiz–. Baita ikasteko zailtasunak dituztenekin lan egin izanaz ere. Neska-mutil horiek hegan egiteko gai izan dira, aurrera egiteko, konplexuei aurre egiteko, jarrerak bideratzeko gai, eta hori bikaina da. Uste dut hori bai egin dugula ondo. Ados egongo zara: talde ona osatu dugu haiekin lan egin dugunean zein haiekin, irakasleekin eta familiarekin bildu garenean. Ez dut “Vuelta la mula al prado” esaldi mitikoa inoiz ahaztuko.

–Zuzendaritzan lan egitea tokatu zaigunean ere ez da gaizki joan. Egokitu zaizkigun egoeretan, irakasleak, ikasleak eta familiak koordinatzea ez da erraza izan. Nire ustez, parte hartu dugun talde zoragarriari esker lortu dugu; hainbat kar-



Irakasleak hurbiletik

Rosa Dañobeitia Sierrak 39 urte daramatza Hezkuntzan; eta Kerman Ibarra Iriondok, 41. Biak orain dela 22 urte ailegatu ziren Txorierri Institutura.

Ondarroan eta Gatikan irakasle ibiltzeaz gainera, Dañobeitia Leza-mako eskolan ere izan da. Derioko Institutuan, matematika eta natur zientziak irakatsi dizkie DBHko lehen eta bigarren mailetako ikasleei; koordinazio-lanetan ere aritu da. Irakasle izatea “gustukoa dudalako” erabaki zuen.

Txorierri Institutuan baino lehen, Derioko eskolan ibili zen irakasle Ibarra, baita Uribarrikoan eta Larra-betzukoan ere. Institutuan historia irakatsi du eta aspalditik ibili da zuzendaritzan, koordinatzaile moduan; azken urteotan zuzendaria izan da. Hezkuntzan zergatik hasi zen kontatu digu: “Garai hartan euskaraz zekiten irakasleak behar ziren, eta ni euskara ikasten nenbilen. Azterketa bat egin nuen eta hurrengo egunean hasi nintzen lanean; ordutik hona oso gustura izan naiz”.

gutan izan garena: batzuetan hemen, eta beste batzuetan han. Baina kargu guztiak bezain garrantzitsuak izan dira taldeak funtzionatu zezan. Eta gure taldeek funtzionatu egin dute. Eskerrak guztiei eman nahi dizkizuet egindako lanagatik; gehien distiratzten dutenei eta, hainbeste distiratu gabe, makina martxan mantentzen dutenei: atal erritmikorik gabe –agertokiaren atzealdean dauden horiek– ez da musikarik jariatzen, abeslaria oso ona izan arren.

–Jarraituko dutenei hau esan diet behin baino gehiagotan: “Inbidia dizuet. Plazera izan da hain talde on eta zoragarrian lan egin izana. Inbidia dizuet, taldean jarraituko duzuelako. Ni banaoa”.

–Gauza asko ditugu oraindik egiteko, eta egingo ditugu. Uzten badigute, eta hala izatea espero dut, prest gaude as- tean behin zuzendaritzak egokitzen jotzen duen horretan laguntzeko. Umiltasunez

eta gogoz jarraituko dugu lanean; satorrek bezala, ikusgai egon gabe. Horrela, aldaketa ez da hain gogorra izango eta gazteek ematen duten energiaren baliatzen jarraitu ahal izango dugu, eta utzi dugun taldeko jendearen energiaren. Talde-puska!

–Autoritatea duen pertsona-taldea da. Baina onaren autoritatea; hau da, ikasleekin eta ikaskideekin, irakasleekin, bedelekin, administrarekin eta garbitzaileekin inplikatzeko lortzen duzuna. Mahaiak mugitzeak, erratza egiteak, ikasleei entzuteak eta irtenbideak topatzeak autoritatea ematen du. Zintzoaren autoritatea, egia-rena; ez karguak ematen duena. Hori beste gauza bat da. Neska-mutilek ikus dezaten nola inplikatzeko zaren, ikus dezaten hor zaudela, haiekin. Horrek ez du esan nahi arrazoia emango diezunik edota ez dituzunik zigortuko, baizik eta Hezkuntzan, bizitzan, laguntzea eta lagunduta sentitzea funtsezkoak direla. Lagunduta

sentitu daitezten. Horretan *honoris causa* doktorea zara.

–Eta zu ere bai; azken egunera arte. Ikasleei entzuteaz ari gara. Denbora eskaintzea oso garrantzitsua da eta ikasleei entzuteari ere eskaini behar zaio denbora; arazo gutxi sortzen dituztenei nahiz arazoak sortzen dituztenei. Guztiek behar dute entzun diezaiegun. Horretarako, kalitateko denbora eskaini behar zaie.

–Umeei kalitateko denbora eskainita, zenbat arazo saihesten diren eta zenbat denbora aurrezten den! Orain modan dagoen enpatia ospetsu hori. Denbora behar da enpatia lortzeko, eta prozesuan neska-mutilek ezagutzen zaituzte eta zurekin enpatia dute, euren gustukoak ez diren erabakiak hartu behar dituzunean ere bai.

–Ordu pare bat gehiago egon gintezke hizketan. Bigarren txandarik?

–Jakina! Zeuk ordaindu.

Abenduak 23, eguaztena

–12:00 *Hankaz Gora* ipuin-kontaketa, Kultura Etxean.

Abenduak 24, eguena

–16:00-19:10 Olentzero eta Mari Domingi, frontoian (lau txanda).

Abenduak 28, astelehena

–09:00-14:00 NEGUTEK tailer teknologikoak. Robotika eta LEGO.

–12:00 Ameli ipuin-kontalaria, Kultura Etxean.

Abenduak 29, martitzena

–09:00-14:00 NEGUTEK tailer teknologikoak. Robotika eta LEGO.

–10:30-13:30 Gabonetako apaingarrien tailerra, Kultura Etxean.

Abenduak 30, eguaztena

–09:00-14:00 NEGUTEK tailer teknologikoak. Robotika eta LEGO.

–10:30-13:00 Feltrozko elurretako panpinen tailerra, Kultura Etxean.

Urtarrilak 2, zapatua

–12:00 Jakoba Errekondorekin solasaldia; liburuak ere salgai. Nekazamudio azokan. Lagatzu euskara elkarteak antolatua.



Jakoba Errekondo. a: www.noaua.eus

Zamudio



a: www.imageneseducativas.com

Lezama

Abenduak 24, eguena

Olentzero eta Mari Domingi.

Urtarrilak 4, astelehena

11:30-13:30 eta 17:00-20:00 Umeen Gabonetako Parkea.

Urtarrilak 5, martitzena

11:30-13:30 eta 17:00-20:00 Umeen Gabonetako Parkea.

Loiu

Abenduak 24, eguena

–10:00-13:00 Olentzero eta Mari Domingi, Larrondoko pilotalekuan.

–16:00-19:00 Olentzero eta Mari Domingi, Zabaloetxeko pilotalekuan.



**GURE
GARIA**

**GURE
OGIA**

EUSKAL OGIA

**GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN**



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA

ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

SONDIKA

BIZKARRA - Justo Ajuria, 1

MUNGIA

BERTEIZ ETA MENDIONDO - Elorduigoitia, 17



Euskadi, aspaldian, bien comen



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Derio

Abenduak 23, eguaztena

–11:00 *Olentzero kuttun* ikuskizuna, Gurea Aretoan.

Abenduak 29, martitzena

–19:00 Duo Bolerós, Gurea Aretoan.

Urtarrilak 2, zapatua

–19:00 Pop-rock kontzertua: Jarabe de Palo, Hertzainak, Nogen... taldeen abestiak. Gurea Aretoan.

Urtarrilak 3, domeka

–18:00 Ipuin-kontalaria, Gurea Aretoan.

Urtarrilak 4, astelehena

–18:00 *Gambaran* familientzako ikuskizuna, Gurea Aretoan.

Urtarrilak 8, barikua

–19:00 *Dos vascas y un destino* antzez-lana, Gurea Aretoan.

Urtarrilak 9, zapatua

–18:00 Tor magoa, Gurea Aretoan.

Urtarrilak 10, domeka

–18:00 *Hankaz gora* familientzako ikuskizuna, Gurea Aretoan.



Tor magoa

Sondika

Abenduak 23, eguaztena

–11:00-14:00 eta 16:00-20:00 Olentzerori eta Mari Domingiri gutuna ematea.

Abenduak 24, eguena

–11:00-14:00 Olentzerori eta Mari Domingiri gutuna ematea.

Urtarrilaren 22ra arte

–Gabonetako postal-lehiaketaren lanak erakusgai, Kultur Aretoa In.



EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

GALAISA
Estetika eta ile-apsaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elegabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Finken administratzailea

Txorisol 4, behe B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Larrabetzu

Abenduak 23, eguaztena

–15:30 Olentzeroen eta Mari Domingiren bila, plazan.

Abenduak 24, eguena

–16:30 eta 18:00 Olentzero eta Mari Domingi, frontoian.

Abenduak 26, zapatua

–18:00 *Lau* (Salto! Sorkuntzak) umeentzako antzezlan. Hori Bai gaztetxean.

Abenduak 27, domeka

–18:30 Pettiren kontzertua, Hori Bai gaztetxean.

Abenduak 29, martitzena

–18:00 Uhuri gautxoriaren uluak ipuin-kontalari musikatua, Doro Zobararen eskutik, Hori Bai gaztetxean.

Urtarrilak 3, domeka

–18:00 *Panpina* antzezlan, Erika Olaizola-ren eskutik (Kamikaz kolektiboa), Hori Bai gaztetxean.



Lau (Salto! Sorkuntzak)

Urtarrilak 8, barikua

–18:00: Kontzertuak: J Martina eta Sua, eskolako aterpean.

Urtarrilak 15, barikua

–18:00 Okupazioaren gaineko hitzaldia, Hori Bai gaztetxean.



J Martina taldea



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*



**GELTOKI
Bar & Cafe**

ospatu gurekin!
**GABON GAUA
GABON ZAHARRA**

Erremerterri, 8
48150 SONDIKA
944 532 592
652 732 584



**tximintx
KOMUNITATEA**

Gabonetan be **EUSKARA AHOAN!**
Gozatu euskaraz!

 **Derio**



**ZAMUDIO
Loteria Nazionale**

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Abangoardiako txertoak

t: Xabier Diaz / a: www.sefap.org

Lerro hauek idazten nabilela, Pfizer/BioNTech konpainien txertaketa-kanpaina hasi dute Britainia Handian. Txertoak inoiz baino azkarrago egin du laborategitik ospitalerako bidea, eta horrek zalantzak sortu ditu beharrezkoak diren segurtasun- eta eraginkortasun-arloetan. Aurreko astean, Errusian ere hasi ziren bertan garatutako Sputnik txertoa jartzen, eta Moderna enpresarena ere prest omen dago. Baina hasieratik has gaitezen...

Txertoen funtsa gure gorputza trebatzea da: gure sistema immunologikoari etsaia nolakoa den adieraziko dugu eta horrela nola borrokatu ikasiko du; hortaz, erasorik jasoz gero, badaki etsaia nola deuseztatu, eta ez dugu gaixotasunik izango. Elgorriaren kasuan, adibidez, ahuldutako birusak erabiltzen dira. Ahulduta daudenez, birusek ezin dute gaixotasunik eragin; hala ere, gorputzak etsaitzat hartzen ditu eta ezabatzen ikasten du. Ondorioz, benetak birusekin topo egiten badu, berehala ezabatuko ditu. Beste kasu batzuetan, esaterako, amorruren kasuan, birus desaktibatua erabiltzen dira. Nolanahi ere, azken batean, estrategia beti da berbera: erasorik egingo ez digun sasi-patogeno bat erabiltzea gure defentsak trebatzea.

Sasi-patogeno horietan ere patogeneoetan dauden molekulak azaltzen dira, antigenoak, alegia, eta gakoa horietan ere badago. Txertoari esker, besteak beste, gorputzak antigenoen aurkako antigorputzak sortzen trebatzen da, eta, horregatik, eraso etortzen denean badaki haren kontra nola borrokatu. Aurre-babes hori izateak behintzat gaitza arinduko du. Beraz, gakoa antigenoetan badago, zergatik ez jarri molekula horiek jomugan? Bioteknologia erabilia, hori hain zuzen ere saiatzen

ari da zenbait gaitzen kontra, eta Pfizer/BioNTech konpainien txertoaren kasuan hala egin da, gainera.

DNAn dauden instrukzioak jakinarazteko, zelulek mRNA edo RNA molekula mezularia erabiltzen dute. Pfizer/BioNTech konpainien txertoari dagokionez, mRNA sintetikoa diseinatu da eta horri COVID-19 birusaren antigenoak sortzeko agindua eman zaio: mRNA molekula horiek lipido-burbuiletan zeluletara bidaltzen dira eta, informazioa irakurri ondoren, zelulek antigenoak sortzen dituzte; zelulek sortutako antigenoekin topo egiten duenean, gorputzak haien kontrako antigorputzak sortuko ditu eta orduan prest egongo da birusaren aurka egiteko.

Segurtasuna eta eraginkortasuna

Alabaina, mRNA berehala degradatzen da eta ez du DNAn aldaketak eragiteko gaitasunik. Bestalde, nahiz eta txertoa benetan azkar garatu den –diru publikoa-

ri zein pribatuari esker-, egin beharreko pauso guztiak egin dira, probak 44.000 boluntarioengan egitea tartean. Noski, txertoa milaka milioi pertsonari jartzea ez da gauza bera, baina aurkeztutako txostenetan ez da segurtasun-kezkarik aurkitu.

Halaber, txostenetan aipatzen den eraginkortasuna % 90 baino handiagoa da, eta baikor agertzeko moduan gauden arren, kontuz ibili behar dugu. Izan ere, eraginkortasuna adierazten denean sintomak hartzen dira oinarritzat eta baliteke boluntarioen batek gaixotasuna sintoma barik pasatu izana. Era berean, ez dakigu babesak zenbat iraungo duen: gripearen kasuan, esate baterako, txertoa urtero jarri behar da.

Azkenik, 70eko hamarkadan txertoari esker baztanga ezabatzea lortu zen ustea dago... Bada, ez: txertaketa-kanpainari esker lortu zen. Biztanleen ehuneko handi batek txertoa hartzen ez badu, berdin dio hori oso eraginkorra den edo ez, patogeneo gordailuak beti egongo direlako. Beraz, musukoa, distantzia, ganora eta, ahal denean, txertoa hartu! Guztion onerako izango da.



TURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etorbidea, 27
48180 Leku-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURTASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Aisin Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lonja
48160 Derio

elekma
LARRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TURKIA

Lehenengo markak • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarri etorbidea, 25-3 N. 48180 Leku
T: 946 539 232
www.elekma.es



a: www.decoracion.tendencias.com

"Gabon 2020. Egun on 2021"

t: Juan Luis Goikoetxea

Izango balitz urte zaharra gaua, 2021 izango litzateke eguna. Urte argian sartzean, konturatuko ginateke gaez hobeto ikusten direla izarrak, baina izarrak urrunegi daudela. Baita, egunaren etorrerak ez dituela ezabatzen gaueko zorrak, ez izurriteak, ez bihozminak.

Dena den, behin honezkero, 2020 iluna da, joana. Ez, oster, hutsa, ezereza. Hara! 2021ean Erresuma Batuak utzi egingo du Europar Batasuna. Orain 100 urte, berriz, 1921ean, Irlandak lortu zuen Ingalaterratik independizatzeko. Iragina gogoan hartu behar da, ze hareazko erlojuak funtzionatzen badu, funtzionatzen du buruz behera ipintzen delako; gaur goian dena bihar behera letorkeelako.

Pandemia astiro-astiro lotara joango da, eta osasuna ez da izango esker bako ondasuna. Nolanahi ere, aurpegiko maskara-erdia ez dugu erraz kenduko, izurri-

teak ohiturak sortu ditu. Ohitu egin gara pertsona biren artean pantailak jartzera, mugikorraren pantaila, telebistarena, musukoarena. Ondorioz, osasuna jagon dugu, ez gozotasuna, gertutasuna, eta barkardadea ez da alternatiba.

Gainera, lehen distantziak, urruntasunak, babestu egin gintuen lurralde txi-roetatik, herrialde atzeratuetatik. Alabaina, jadanik, etorkinak edozein bidetatik datozkigu. Planetaren asagoko albisteak etxeko bilakatu zaizkigu: "XXI. mendean 258 milioi neskatila eta mutiko dira inoiz eskolarik zapaldu gabeak".

Edozelan ere, gauetan, lehengoetan nahiz oraingoetan, amets egiten dugu: Mundua femeninoa izango da; lankide-tzak eta ezagutza partekatuak salbatuko gaitu; iratxoak basoetara itzuliko dira.

Hainbeste arazoko zibilizazio likido honetan nabigatzeko, "txalupa txikerra da nirea" erantzungo duzu, irakurle. Hala ere, elkartuz biderkatu egin gaitzek; traine-rua ere osa genezake.

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 432 14 49

PATXI
KOOP

RADU KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabizteko gaitasuna. Plazaren 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 122 237 | info@patxi.coop | www.patxi.coop

Nire Autocasion **NA**
INPORTAZIOA ETA
SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48180 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com | info@nireautocasion.com

**PELUKERIA
ESTETIKA**
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Etxeko sukaldaritza

Zainzuri- eta
otarrainxka-
budina

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

- Zainzuri-lata bat
- 12 otarrainxka (zurituak)
- 3 arrautza
- 300 ml esne-gain
- Orioa
- Gatza
- Piperbaltz zuria

Prestateko area:

Ontzi batera arrautzak, esne-gaina, gatz apur bat eta piperbaltza (gustura) botako doguz eta ondo irabiauko doguz. Labarako lau ontzi hartuko doguz, gurinez eta urunez igurtziko doguz eta nahasia ontzietan banatuko dogu. Zainzuriak eta otarrainxkak be botako doguz eta nahasiagaz nahastuko doguz. Ontziak laba berora sartuko doguz (180 graduan) eta 30-40 minutuan maria-bainuan izango doguz, harik eta egiten diran arte. Hotzitzen itxiko doguz. Mahaira maionesak lagunduta aterako doguz.

Txipiroiak plantxan,
kipuleagaz eta piperrakaz

t: M.L. / a: www.lugaresconestrella.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 24 txipiroi (garbituak)
- 2 kipula (tira meheetan ebakiak)
- 4 berakatz-atal
- 12 pikillo piper
- Oliba-orioa eta gatza
- Perrexil apur bat

Prestetako area:

Txipiroiak garbituko doguz eta hankak eta hegalak gordeko doguz. Kipulea

erregosiko dogu eta hankak eta hegalak gehituko doguz. Gatz apur bat botako dogu. Txipiroiak nahasteagaz beteko doguz. Zartagin bat berotuko dogu, orio apur bat botako dogu eta txipiroiak alde bietatik erreko doguz. Ondoren, piperrak egingo doguz berakatz-atal bigaz. Beste berakatz-atal biak orio apur batezaz prijuduko doguz eta txipiroiei gainetik botako deutseguz. Perrexil apur bat ere botako deutsegu. Txipiroiak piperrek apainduta ipiniko doguz plateretan.



Zure taxi,
Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESCARGA APP-A



TAXI FEMADE



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO

Tel.: 94 452 28 18

IZ

ile-apaindegia
estetika

Txanxangorri, 2
ZAMUDIO

946 036 943



**KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK**

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO

689 213 782

Marrubi- eta kiwi-crumble-a

t: M. L. / a: unpellizcodecanela.blogspot.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 20 marrubi
- 4 kiwi
- 100 g gurin
- 125 g azukera
- 150 g urun

Prestetako erea:

Marrubiak garbituko doguz eta lau zatitan ebagiko doguz. Kiwiak zurituko

doguz eta zerratan ebagiko doguz. Fruta-zatiak labarako lau ontzitan banatuko doguz, eta gaineratik 50 g azukera inguru botako deutsegu. Orea prestetako, gurina dadoetan ebagiko dogu eta ontzi baten urunagaz eta geratu dan azukereagaz nahasiko dogu. Ondo oratuko dogu, harik eta ogi-maminaren antzeko orea lortzen dogun arte. Orea frutaren ganean banatuko dogu eta ontziak laba berora (200 graduan) sartuko doguz 15-20 minutuan.



Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE
DI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

CK

OAKLAND

ENGLISH

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

hotela
jartetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAYARITZA

Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215

10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

ikastegi homologatua

**LARRABETZU
MUSIKA ESKOLA**

**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!**

Errebale, 7 behea
94 455 70 66

IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com

**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAT - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRORIA: DURANGO
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTZIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
Tel. 94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
Tel. 94 674 33 40

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorierritar guztioi**

BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

Gabonetan be
euskeraz bizi

ZORIONAK

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ELKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

Txorierrri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31

**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

**Imaz
TABAKOAK**
EXP.:002

Gorbea, 6 | 48160 Derio | 94 454 07 69

Opariak eta osagarriak
Puruak grabatzea
Mobilak kargatzea
Barik txartela kargatzea

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.lululataupe.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK



–Egurra S.A. (Erein), Toti Martínez de Lezea.

–Azken dantza New Yorken (Erein), Lur Gallastegi Zendegi.

–Sherlock Holmesen abenturak (Ige-la), Arthur Ignatius Conan Doyle.

–Erabili goldea hilen hezurren gainetik (Elkar), Olga Tokarczuk.

–Andromedan (Erein), Joxean Sagastizabal Errazu.

LITERATURA: GAZTEAK

–Kokonutt (Elkar), Miren Amuriza Plaza. II: Eider Eibar Zugazabeitia.

–Tintin: Ilargian oinez (Zephyrum), Hergé. It: Inazio Mujika Iraola.

–Isadora Moon: Kanpaldira doa (Menzulari), Harriet Muncaster 2020.

Sudokua

		2		9	5			3
	3	5						
8					6		7	
2				8				
			7				5	1
	8		6		3			2
							9	
5								7
1		9				2		

8	3	2	7	4	5	6	9	1
7	1	4	8	9	6	3	2	5
9	6	5	2	1	3	8	7	4
2	4	7	3	5	9	1	8	6
1	5	8	6	2	7	9	4	3
6	9	3	4	8	1	7	5	2
5	7	1	9	3	2	4	6	8
4	2	6	1	7	8	5	3	9
3	8	9	5	6	4	2	1	7





Plazan elkartuko gara berriz
Lainomendi Dantza Taldea



ETORKI TABERNA

Eguneroko menua

Asteburueta menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

*Zorionak eta
Urte Berri On*



*Liliak
Loradenda*

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amalaarentedea@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO
94 454 12 23



**LARRABETZU
BIZIBIA**

**ETXEEN
GURU DOGUZ
GABONETAN**

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK
GUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub



Ondo pasa jaietan!

**INES
JANARI-DENDA**

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEAK ETA UDALEK ZORIONAK ETA URTE BARRI ON OPA DEUTSUEZ




GASOLINDEGI BARRIA

SASINE INDUSTRIAGUNEA LARRABETZU

BIDEKO

ERREPIDEAN BIDELAGUN



**Garraiolaria
bazara,
egin bazkide!**

**Partikularra
bazara,
emon izena
deskontua
jasotzeko!**

Berton 5 mikratan filtratutako
bakterien eta lizunen aurka tratatutako
kalidadeko gasolioa

larrabetzu@hiru.org
T: 629 162 230
www.bidekoaterpe.eus



GASOLIO ONENA, PREZIO EZIN HOBEAN!